


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

168n. Zenbakia Azilla
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



- EUSKALDUNAK KARLOS AUNDIAGAZ BURRUKA GOGORRA IZAN EBEN.
- NAGUSI IZAN ZIRAN ORREAGA'N
- IRUDIAN GUDA ORREN GOMUTAKIA

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1992-93 IKASTURTEA
OGEITABOSTGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: **ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN**
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA: 13.000 pezeta.

IZENA EMOTeko-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2
BILBAO.

URRUTIZKIÑA 423 53 22

25.º CURSO DE EUSKERA BIZKAIKO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES
O MARTES Y JUEVES

HORAS: MANANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 13.000 pesetas

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.
TELEFONO 423 53 22

LAGUNTZAILEA

COLABORA

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

EUSKERA ZERTARAKO

EUSKERA ZERTARAKO?

Ikasturtearen asieran gagoz eta aurten asten dogu EUSKERAZALEAK ALKARTEA'n 25^a. Orretan alegin aundi bat egin dogu eta egiten dogu.

Baiña gaur batek baiño geiagok itauntzen dau olako zeozer: Euskera zertarako?

Itaun ori oker ezarrita dago eta gaurko gizarte ondasun-zalearen itxura baragarria agertzen dau.

Egin dagigun ama zarra gaisorik eta bear ba'da ilzorrian dagoala eta gu gure arduraz eta gogoz geure ama zaintzen. Alboko edozeiñek itaun au egingo ba'leu: "Zertarako zaintzen dozu orrebestean zure ama", guk zer erantzungo geunskio? Erantzun zuzena auxe litzake: Ezertarako be ez, ama dalako ta maite dodalako. Erantzun orregaz, itauna egin dauanak lotsarik ba'dauko, lotsatuta geratuko da. Orregaz esan gura doguna da, ondasunak eta "zeozetarako" izateak baiño goragoko balioak dagozela munduan.

Orregaitik, aberria ta bere izkuntza benetan maite ba'doguz, itaun lotsagarria da au: euskera zertarako ikasi? Erantzuna antzekoa litzake: "geure izkuntza dalako ta maite dodalako". Eta ori naikoa da, beste barik.

* X

Baiña abertzaletasuna makal daukenak, euskera ainbeste maite ez dabenak be bizkortzeko, gogoratu dagizuzan euskera jakiteak dakazan onura batzuk.

Onura bat, euskaldunai ulertzea da: Ainbat lekutan egiten da euskeraz berba, batzarretan be bai, eta zergaitik geratu bear dogu guk ulertu barik?

Edo, beste ikuspegi batetik, geuk euskera ez dakigulako, zergaitik beartu bear doguz euskaldunak erdera egitera, guri ulertu eragiteko. Zenbat kalte egiten dau-tsoen euskereari, izkuntza au ikasi nai ez dabenak! Zenbat lekutan erderaz berba egin bear izaten dogun, eurak ulertu dagien, eta sarritan asarretu ez daitezkan!

Gaiñera izkuntzak alkartu egiten dau, guztiok euskera egiten dogunean, alkartasun berezi bat sortzen da gure artean, euskaldunen alkartasuna.

Izkuntzak noberaren barru-barruko izakerea agertzen dau, norberaren sena. Eta euskaldunok daukagun barruko sena euki gura ba'dogu, euskera ikasteak gure jokerak orretara biurtuko dauz: Gauza bardiñak era oso ezbardiñean esaten doguz euskaldunak eta erdeldunak, geienetan atzekoz aurrera. Ona emen esaldi errez bat: "Beiak landan dabiltz bedarra jaten"; euskal-sena galdu barik gazteleratu ezker onelan litzake: "vacas las en el campo andan hierba la comiendo". Euskaldunentzat eta erdeldunentzat ez dira bardiñak garratzizko gauzak esaldi orretan, eta orregaitik, daukagun sena ez da bardiña. Izkuntzak gure nortasuna egin egiten dau, orregaitik da garrantzi aundikoa euskerea txiki-txikitatik ikastea, umea gero benetako euskalduna izatea nai ba'dogu. Baiña euskal-sena norberaganatzeko ez da berandu iñoz be.


Izkuntzalari lez arazoa begiratu ezker, euskereak daukan egiturea arrigarria da izkuntzalarientzat: Dana aditzean batzea: Adijabe edo sujetoa, aditz-erroa, egozkizun zuzena (complemento directo) zear-egozkizuna (complemento indirecto), inguru-egozkizunak (complementos circunstanciales), esaterako. **Dakar-tzudanean:** d-egozkizun zuzena, kar-aditzerroa, **tzunori** edo zear-egozkizuna, d-adijabea edo sujetoa, nean-noiz egozkizuna. Benetan egitura arrigarria ta ederra, guztiz jaintsua. Japondarren izkuntzak ei dauko olako zerbait.

Gainera, euskereak millak urteetan inguruko erriak izan doguzan artu-emonak gogoratzen dauskuz: Zeltakaz batera daukaguz **landa, gona, frakak** eta olako berbak. Italian **minigona** esaten da eta guk bear ba'da, **minifaldea**, zergaitik? Latiñetik erdereak baiño lenago artu genduzan, **berba, lege, bake...** geroago eromantzetik **izpillu, akullu**, arabiarrekandik **albaite-ra...** Olako aurkitzeak egiteak sekulako poza emoten dau. Zergaitik esaten da Galizia'n eta emen bardin **bota?** Zergaitik **ezkerra** berbea emen eta Kataluñan eta Galizian. Eta gaztelan ortik artuta "izquierda"?

Euskereak barruan daroa gaiñaera gure erriaren kondaira. Azaldu dagigun zer dan **taloa**, esaterako. Zergaitik batzutan **bidea**, beste batzutan **kamiñoa, burdia** eta **karroa?**

Gure izkuntza ikasteak eta sakontzeak euskal nortasuna ta poza emongo dauskuz.

ERESLARI BI



Bernaola'tar Karmelo eresgillea ta Atxukarro'tar Joakin pianularia aberriko eresi-sariketan sarituak izan dira. Jakintza-Jaur-Sailleak iragarri eban lez, milloi bi ta erdi lauerlekoz oniduta dagoz sari orreik.

Ertilaric lan-ekintza saritzen da or eta aberriko erresiari buruz, oraingo ikuspegia ondo agertzen dala diñoe batzuk, baiña eresgille gazteai emon bear jakela laguntza be esan dabe.

Ertilari oneik nongoak diran?

Biok dira euskotarrak, eta bat Otxandiano'koa izanez, euskaldun jatorra, euskeraz berba egiten dakiana. Eta bestea, euskadi'ko abizena euki arren, ez dakit euskerarik dakian.

Aldi bitako pozaldiak gogoratzen dauz Bernaola'k: 1952'an olangoxe sariketa baten Atxukarro ereslari bizkaitarrari emon eutsola saria diño.

Gure Bernaola antxiñatik dabil eresa sortzeko lanetan eta entzute aundia lortu dau; zine, irrati eta ikuskiñean eres-lan asko agertu dauz eta orregaitik 1988'an artu eban Goya saria, "pasodoble" pelikulearen eresagaitik, zinc-akademiak emoten dauan saria.

Bernaola'tar Karmelo 1929'an garagarrillarcn 16'an jaio zan. Gero Erroma'n Godofredo Petrassi'ren ikasle izan zan eta Darmstad'en Bruno Maderna'ren lankide. Tasman eta Julivet'eko ikaskctara eldu zan Lavagnino zine zalearekin.

Sariketa askotan izan da txapeldun, baiña saririk ederrena Eder-Lan edo Erti-cderren urczko domiñea da.

Atxukarro'tar Joakin pianularia Bilbao'n jaio zan 1937n. urtean eta Liverpool'en Erriarteko Norgeiangoan garaille urten eban 1960'an. Bere erriarteko lasterketa, abiadura, oskatu egin eban.

Urte onetan London'go Simphoni Orchesta'gaz lan-aldia egin eban eta urte aretako pianulari gazterik onenari lez, Harriet Cohen domiña emon eutsoen.

Atxukarro'ren abiadura munduko lateririk ospetsuetan biribildu da, baita jai-aretorik onenetan be. Guztiz, berrogei ta zortzi laterritara eldu da.

Ingeles, italiatar eta españatar orkesta-ereskintzara eldu da zuzendari bakar lez, danon pozerako.

Euskotar, Bilbaotar eta bizkai'tar oneri jakintza-lanbi-deak aberri-sariketa emon eutsonean, berak au iñoan: "Ustekahez, zerutik jausita, poz-atsegiñez bete nauan zerbait izan da".

LETONA'K

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñarcn barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillarcn azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1.^a 40.000 pezeta

2.^a 30.000 pezeta

3.^a 20.000 pezeta

4.^a 10.000 pezeta

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

EUTSI BIOTZ-ZABALTASUNARI

ZER ETA BIZKAIERA

Adizkari onetan, geure ZER onetan, idazteak poz andia dakarst. "Bizkaitarra bizkaieraz", alde batetik agiria baka- rrik dala emoten dau, baiña beste aldetik zantzua be ba da, geure euskalkiaz jatebu ta bera erabilten dogunoi erronka jaurtiten dauskula esango neunke.

Izan be, ZER izan da, eta olan jarraitzen dau izaten geure bizkaieraren gidari ta eredu bikaiña. Bertan agertu jakuz jakingarri ugari eskeiñi dauskuezan idazle on-onak. Aitita zarrari ainbeste seme ta illoba, konta-kontari, eta kanta-kan- tari (bertsoetan-eta) jarraitu dautsoe betiko ildotik, eta esku zabalez agurturik idazle barriak, bizkaierari iñoiz musin egin baga. Ba ekien gure aurretikoak, eta bearbada, guk orain euki geinken adore ta kemen biziagoz, ZER lako aldizkariak euren tokia bear ebela, antxiñako bizkaiera-idazleen lumak jaso ta indar barriz, areik egin ebena gaurkotuaz, dirdira ber- bera opatuaz.

BERE ARAZOAK

Ordukoak beste aldiak ziran. Obeagoak bizkaierari buruz, bearbada. Euskalkiak euren askatasunean jokatzeko oztopo gitxi euken, berrogeita amar urteko illunpetik iare urten ebe- netik beñipein.

Argi-berrikuste aren arrezkero euskalki guztientzat zabal- tasuna ta oparotsuna etorrela ikusi zeinkean. Baiña etzan olan jaso.

Ain zuzen be, orduan sortu ziran aize bolada bortitzak eta ondorioz, gauzak okertzen asi ta bizkaiera ia alboratuta laga euskuen. Euskera "Katuak" arin baztertu eban geure euskal- kia geienen burutik eta lumatik. Gaurko joerari so egiñez, bizkaiera batasunerako oztopo andia dala dirudi. Mingaiñaz erdeñu erakusten dakienak gitxi dira, baiña egitez orkon- ponka diardue.

BAKEARI LEKU EMON

Ez dot eztabaidan sartzeko asmorik, aldizkari onetan ain zuzen be nik baiño obeto auzi au aztertua izan dalako. Beste asmo batek nakar idazlan au osotzera.

Ni neu, niketz, baztertuen, alboratuen, jente xeearen eta euren burua jasoteko lain ez direnen, edo aukerarik ez dau- kenen alde jarriko nintzake. Onegaz ez dot esan nai, beste barik, gitxiengoaren alde nagoela, neure barruko sentimen- tuak orra makurtzen nabela bakarrik. Gitxiengoak derrigo- rrez eta bortxakeriz geiengoan eskubideak kentzen ekiten dakie politika-arloan eta ez gitxiago kultura-arloan.

Gizon-emakume guztiok, naita apalenak eta estipenez ondatuak agertu, gure asmoak esnatuta edo ezkutata euki, besteen gaiñetik geure burua jasotea nai dogu; lurreko beste

gizon-emakume guztien gaiñetik, geure erritarren, kideen, lagunen, senideen gaiñetik. Ortik, besteak menperatzera jotera ez dago alde andirik.

Agintzeko irritsak era askotan agertzen dira. Laguntzarako, kulturarako, kiroletarako eta olako amaika alkarteak, itxuraz danen onerako dirala emoten dabe, baiña guzti au da, talde bategaz, txikia izan eta be, jabetu izateko asmo illuna.

Orduan, besteak be beste orrenbestera jo nai dabela eta jokaera orretan gure makaltasuna somatuaz, mokokak sor- tzen dira. Kondairak millaka urteen zear naiko zer esan dau auzi onetaz.

JOKABIDE ZUZENERUNTZ

Gure Elizamaren izaeraz jabetuta gagozanok ondo daki- gu, bazter guztietako semeok eta bada ezpadako arrain eta piztiak osatzen dogula bera. Orregaz auxe esan nai dogu: ez garala danok zerutik jatsitako aingeru zuriak, ezta be "Pedro Botero"ren galdaratik adar eta guzti iges egindako jantzi gorridun batzuk. Emengoak gara, **emen** orrek gure leor eta itxasoaren goraberak ondo astinduak garala esan nai dau.

Orregaitik Eleizak be gizartearen eragiña bere erraiñetan somatzen dau. Eleizearen kondaira ondo aitzeko bere barru- ko jakaera ezbarriñak kontuan artu bear dira. Ezin geinke esan, beste barik, Eleizak beti era batera jokatu egin dauala. Ez eban jokatu Erdi-Aroan geroko aldietan lez, eta askoz gitxiago gaurko egunetan lez.

Gizartea nunbaiten gogorkerira makurtzen ba ekian, toki- ko Eleizak beintzat ez eutsan beti agirian ukorik egiten, beste aukera obeari begira egonaz. Naita askotan Eleiza bere irakasketetan irautzaile agertu, bere indarra ez dalako izki- lluetan oiñarrituten ,gizartean aolku-bidez jokatu bear dau.

Gaurko Elizak gizarteaz artu-emonetan aldakuntza oarga- rria egin dabela esango neunke. Aldarregaz, bai Eleiza- barruan bertan, bai Eleizatik kanpo direnegaz itxura zabalago agertzen dau, eta geroago ta zabalago agertzen joango dala pentsateko zio itxaropentsuak daukaguz.

GURE ALDIZKARI AU

Gure artean be alkarrenganako begirunea ta aitzea erein eta landu bearra daukagu, batez be euskera arloan. Ez daukat "Joanak joan" esateko gogorik. "Joanak" oindiño dirautela- ko. Baiña ZER'ek artu eban bideari aurrera ekin daiola, artez beteten dakialako gaur be bizkaierak bear daben arnasa bizkortzeko.

ZUBIKARAI'TAR JOSEBA

ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN

OMENALDIRA ETORRIAI

Ongi etorri eusko semeak,
on etorri euskerara,
euskal eguna dogu gaur eta
seme zintzoen erara;
millak urteak daukaz euskerak
Ondarruagaz batera,
seme-alaba, leial- argiak
datoz ama goratzera.

Itxastar gizon, erritar seme
eta euskerazaleak,
danon artean, emen, ditugu
euzko gidari trebeak;
emon indarra, emon bultzada
adoretzeko semeak,
ama on batek merezi dauz-ta
seme guztien txaloak.

Txomin Agirre oroitu daigun
Onadarroako Iorea,
eta arekin bustartu daigun
Zubikaraitar semea;
izar barriak sortu daitezain
ai, oi, euskera maitea,
zure bizia zabalduko daun
euskal mutil artista.

OMENDUARI

Mutil koskorra intzan garaian
zer erabillan barruan,
nor eukan, beti, zirikatuten
euskeraren inguran;
gazte gazterik, amets eder bat
gozotasunez buruan,
eta biotza, gogor, bultzaka
izkuntz amaren kolkuan.

Ezin neik itzi aitatu barik
itxas-ertz zoragarria...
Ondarrutarren amets guztien
bizitzarako bidia;
ainbat izerdi ta ainbat egun
igarotako urtzia,
noz nai arriskuz, noz nai arraiñez
ondutako bizitzia.

Eusko guraso aintzagarriak
emon euen adorea,
izkuntza aldez lan ederretan
urtuteko bizitzia;
egiz, eder dok izkuntza bati
eskeintzea bizitzea,
Euskalerrriak goratu daian
arbasoen sorrerea.

PAULIN

OKER BAT ZUZENTZEN

Gure ZER onen azkenengo zenbakian, (167, urrilla, 1992), aldizkariaren gaiñean, oker bat argitaratu dogu: Orreaga'ko eleizatxuan dan illobia III Santxo Erregearena dala, baiña izatez, Tolosa'ko Nabetan burrukatu zan VII Santxo'rena da. III Santxo bai izan zan euskaldun guztien eta beste lurralde batzuren errege, baiña au ez da illobi aretan ollobiratua izan zana.

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.200 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.
Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

BATUAREN URRATSAK

Bazkide ta Adiskide begikoak:

Oporrak igarota emen gaituzute, indar berrituta, gure lanari ekiteko asmoz; zuek ere orrelaxe arkituko zaituztegun itxaropenez.

Bein da berriz esanda ere, guzior lanaren beara du gure Euzkerak' Euzkera galtzen ba'da, Aberia ere galduo dala argi bai dago. Au gertatzea nai ez ba'degu -ez det uste gure bazkide ta adiskideok, iñola ere ori nai dezutenik- lenengo EUSKALDUN GUZTIOK, aal degun guzian EUSKERAZ egin bear degu, EUZKERA da ta gure Izkuntza! Etxean, lantegian, lagun artean, jayetan e.a., leku guzietan, beti, aal dan guzian!

Bigarren, EUSKERA GARBITZEN alegindu bear degu; guztiok gure aletxoar jarriaz. Orain leku guzietan darabilkiten "euzkeranto" ori baztertu arte ez degu etsi bear.

Azkeneko aldizkarian, Oñatibia'tar Dunixi ta Latiegi'tar Bixente'ren "Esuskaltzaindiari epaiketa" izeneko idaztitik jasota, "Euskerazaintza" zergatik sortu zan ikusi genun. Oraingoan idazti beretik "El batua"ren jaiotza-aroko egunik aipagarrienak" azalduko ditugu. Laburpena:

-1963'garren urtea. "Euskeraren Batasunerako Idazkaritza" bat eratu zuten Baiona'n Euzko Alderdi Jeltzaletik iges egindako sozialismu-zale aiek. Zazpi gizonak osatu zuten Idazkaritza ori.

-1964. "El batua" zale guztien billera Baiona'n. Len aipatutako Idazkaritza orrek sortutako Billera.

- 1965. "Zeruko Argia"k, Urrilleko zenbakian argitaratu zuan aurreneko aldiz emen, H'z jositako idazlan bat. Saizarbitoria'k idatzia.

- 1968'aren uztailean, Ermu'ko Billeratik H'a non jarri bear zan galdetu zioten "el batua" zaleek Euskaltzaindiari. Orrela, Euskaltzaindia izkuntza-borrokara amildu nai zuten.

- 1968. Urrillean Arantzazu'ko Billera tamalgarria. Billera ortan iriki zizkion atek H'ari Euskaltzaindi'ko Batzorde batek, eta H'aren estalkipean, une berean iriki zion sarrera "el batua" guztiari. Mitxelena'tar Koldobika dugu ekintza aren errudunik aundienetakoa. Ortarako erabilii zuan "ez-arrazoia", gero ikusiko dugu.

1970. Bereala, Euskaltzaindiaren zuzendaritzatik jaurtia izan zan Lekuona, eta Villasante, aren ordeiz izendatua.

Laister ekin zion Lendakari berri onek, "el batua"ren aldeko borrokari. Ortarakoxe, izan ere, izan bait zan aukeratua! Bai ederki etorri zaiela Villasante Prantziskotarra, "el batua"-zale marxistar ezkertiarrei!"

Lengo Aldizkarian idazti au arkitzea, baiña ale batzuek ba ditugula adierazi nai dizuegu, salgai ditugula, alegia. Nai ba'dezute eskatu -"Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" -3325 bidal-tokia 20080 Donosti- 400 Pta. da salneurria.

'Batua"ren arazoa argi ikusi nai dunarentzat bearezkoa dala esango nuke.

Beste idazti aipagari bat ere ba'degu. Berria da; gure bazkide, Jauregizubia'tar Segundo'k idatzia eta Iakakor-taxarena'tar Txomin apaiz jaunak euskeratua. "vivencias de un vasco cualquiera" du izena erderaz ta "Edozein euskaldun baten bizikerak" euzkeraz. Idaztia bi izkuntzetan da beraz; Euzkeraz alde batetik ta erderaz bestetik.

Idazti irakurgarria, atsegiña. Urengo aldizkarian aztertuko degu luzeago Jainkoalagun. Ale batzuek ba ditugu salgai. Saneurria 3.500 Pta.

Uztaila'k 6'an, Erri Irratia'n, Luis Mitxelena'ri buruz, izketaldia entzun genun.

Mitxelena Euzkera arloan jakintsua zala ezin ukatu; arlo ontan, Euzkera gayean alegia, lan asko egin zun, bai. Baña, tamalez, bidea galdu egin zula esango genuke, "batua" izeneko "euzkeranto" ortan lanean asi zanean, abere adiskide, euzkaltzale "JAKINTSU" geyenen iritzia- ren aurka gañera. JAKINTSU auek eta oraindik bizi ditugunak, GUTXIENEZ Mitxelena bezin jakintsuak dirala argi utzi nai degu.

Gero, Uztailla'k 17'ko DV. izparringian, Ibon Sarasola'k Mitxelena'k esandako au aitazten du:

"Este profesor se mostro muy preocupado en la ultima etapa de su vida por la creciente presencia, tanto en el lenguaje oral como en el escrito, de palabras eusk ricas procedentes del castellano".

Miren Azkarate'k onela dio, izparringi berean:

"Mitxelena decfa que estos "calcos" procedentes del castellano son doblemente peligrosos, porque a la larga influyen incluso en la sintaxis del idioma "invadido"."

Auxe da aspalditik esaten ari gerana. -Gu, "Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" Elkartekoak, alegia, (3325 Bidal-tokia - 20080 Donosti) eta baita beste Elkarte batzuetakoak ere. (Euskerazaintza - Euskerazaleak e.a.) Ez al dago ba argi erderakada oyek "batua"rekin batera sartu zaizkigula? "Batua" orrek, Euzkera-Gaztelera-Prantzera besterik ez ditula batu?

Mitxelena'k etzun garaiz ikusi, tamalez, gertatzen ari zana, naiz eta lenengotik euzkaltzale ta adiskide askok adierazi.

ARZELUS'TAR AMALE'K

GIZONA KONPONDU

INDARKERIA

Otso basatiak baño ankerragoak diran gizonak sortu eta agertu dira, aspaldi ontan, Peru'ko baso eta mendietan. Eta, txarrena: bedar gaiztoa, gal-tzen gaiztoa.

Euren lege bakarra indarkeria eta eriotza, tris-kantza eta ondamendia da. Eta indarkeri bidetik dabilzan guztiak lez, euren buruak garbitu nai dabez sinistu eziñezko guzurrekin: aberriaren alde dagozala, aberria aundikien menpetik askatu nai dabela. Bai, zotza!

Eta aberriaren aurka kalterik ikaragarrienak egi-ten diardue, bere aberastasunak eta aurrerapenak ausi ta birrinduten. Eta oker batek, oker asko dakarrelako, errien eta giza-semeen biotzak gorro-toz betetzen. Olantxe amaitzen da errien izangoa.

AGUR, BETIKO

Diego'k eta Nena'k, etxe bizitza eta lurralde ederrak eukezan Andes mendietako barrenetan. Baña basa-gudalarien bildurrez, igesari emon dautse, eta euren etxe, solo eta beste ondasun guz-tiak galdurik, Lima uriburura etorri dira. Nork eta zelan azaldu biotz onen atsekabe ta samintasuna? Gogoan artu bearko dabe, beiñ baño sarriago, eusko esakerea: "etxetik urrun, zorionetik urrun". Biotz barru-barruan sortzen jake agur onen intzi-ria:

Agur, basetxe maite
zorunaren abi,
agur, zelai ta landa
orlegi ta garbi.
Gudu aize zakarrak
egin gaitu jaurti,
zori barik, biotz-miñ,
nora jo, bidari?

Diego'k eta Nena'k seme bakarra dauke, Daniel izenekoa. Ikastaroa asitakoan, eskolara eroan dabe. Gurasoak, barriz, kalerik kale ibilli bear jakiak eta edakiak saltzen. Ostatua, nun? Lenengo egunetan "nun illundu, an sotatu".

Daniel umeak, giro ontan, ikasiko al dau ezer? Bai, zera. Bere biotza eta barru osoa samiñez urra-tuta dago. Zelan liburu bati burua makurtu, eta ikasteari ekiñ? Ezin, ba. Gogait garbi eginda dago. Bai, egia da, izan be, "rñendian jaiok, mendira nai".

Bere maixuak berebiziko ardura artu dau muti-ko au bere egoera negargarritik zelan edo alan, as-katzeko. Eta bere gogoia pixka bat bizkortzeko edo, Peru'ko mapa eder bat emon dautso. Muti-koak, muzin egiñik, esaten dau; zer eta zertarako da mapa ori?

Alako baten maixuak umearen amari deituz, esaten dautso: ume au bere barruko ondo-ezak jota daukazu. Urduri eta biurri bizi da. Eroan egizu etxaldera, eta urrengo ikastaroan, bearbada, egoki-tuko da.

GIZONA KONPONDU

Ama on baten maitasuna, semeen ezbearretan, urritu ez ezik, ugaritu egiten oi da. Samintasunak eta maitasunak egoitza bat, eten eziña, izaten dau sarri askotan ama onaren biotz barruan. Etxera eldutakoan amak, biotz beratasun aundienaz, esa-ten dautso semeari:

–Zer dozu esku artean daukozun ori?

Semeak:

–Maisuak emondako Peru'ko mapea.

Amak, mapari begiraldi sakon bat egiñik:

–Bai, egia da izan be. Auxe da gure aberri eder, zoragarria. Bera ikusirik burutasun bitxi bat dator-kit. Ara, eskolan zer eta zenbat ikasi dozun jakin dagidan, mapa ori zati-zati egizu, eta gero, asma-kaitz bat atontzen dan moduan barriro be atondu eta konpondu egizu. Ori izango da gaurko zure ikaskaia.

Mutikoa, mapea apurtu baño lenago, adi-adi, begira ta begira egon zan alde batera eta bestera, gora ta bera. Eta gero esku artean arturik zatitu eta zeatu egin dau. Eta beingoan, "atundu baietz" esa-nik, asi da gogo beroz mapa ori konpontzen. Aiseran larri eta gorri ibilli arren, andik ordu bi

baño lenago, ederto atonduta geratu jako. Alai eta pozik amari deiturik, erakusten dautso.

Amak mapea ondo baño obeto moldatua ikusi-rik:

Baña, zer dala ta esan dau maixuak ez dozula ezer ikasten? Ikasi eta jakin barik zelan konpondu dozu aiñ ariñ eta ederki gure aberriaren mapea?

Semeak:

Ama, nik ez dot ezer ikasi, eta jakin be ez dakit zelan dan gure aberria, bere mendi gallurrak eta errekek, bere erriak eta uri aundiak, bere itxasaldea eta ibarrak. Origaitik mapea zatitu baño leen, alde batera eta bestera, gora ta beera begira izandu naz. Eta, zorionean, konturatu naz zera, maparen beste aldean, bere pare-parean, gizon baten irudia, maparen tamañokoa, egoala, eta, "au dok neuria" esan dot neure baitan. Beste barik asi naz, poliki poliki, gizonaren irudia konpontzen. Eta, au zoriona! Gizona konpondurik, Peru be konpondu egin zan!

Gizona konpondurik, Peru be konpondu egin zan. Auxe bai egirik garbi eta sakonena. Ez da besterik bear mundu osoa konpontzeko. Ez dago iñungo batzarrera joan bearrik. Giza-barruan, bertan, dago gizadiaren konponbidea. Gizona, beti, lenengo maillan. Gizona eta bere gizatasuna, zintzotasuna, garbitasuna eta kristautasuna.

Konponduko al dau gizonak bere burua? Bai, konpondu bearko dau, gizadiaren konpontzea nai badau. Ez dago beste biderik.




Kristo, gure Maixuaren asmoa eta eginkizuna orixe berori izan zan: gizon osoa, gizon guztiak, eta gizadi osoa konpontzea. Zer egin bear dogu? Bere irudi santua gure jarraibidetzat artu eta bizi.

Eta, mutikoak zer egiñ eban? Jazoera zoragarri ori ikusi eta ausnartuz, bete betean ekiñ eta jardun eutson ikasteari, ikasketak burutu arte. Eta maixu ospatsu egin zan, batez be, ikaskai eder au ume guztiai erakutsirik. "Gizona konpondurik, Peru be konpondu egingo da".

Euskadi maitea: Aurtengo zure xede, asmo eta eginbearra auxe dozu:

"Gizona, leen gaia"

Euskal giza-semea konpondurik, Euskadi be konpondu egingo da"



LIMA' TIK
URIGUEN'TAR ZENON

INDURAIN, TXIRRINDULARI TREBEA

Trebea izena aurkitu dot jokabide on baten ager-garrizat. Almenak eta doaiak ez dira bardiñak lagun guztietan, eta almen orrek erabilteko doaia da beste gauz eder bat. Edonork ez daki almen orrek, egokitasunez erabilten. asko puztu egiten dira almen ederrren aurrean, ta gero, pusika ori lertu egiten da ta itxuragabetu personea. Larregizko aize-putzekeriak, beti, izaten dira naskagarri gizartean bizi diranentzat. Gizon negurritsua aurkitzea ez da edozein lekutan aurkitzeko sagar landara lorez betea.

Zuk Migel, erantzueria on bat emon dautsegu zeure gizon izate, kristautasun ta abizenari, artu dituzun almenak, egoki, erabiliak bizikleta baten egoetan. Arin-arinalari bikain bat izatea ez da erreza, baiña mutilla, gora goraka, doanean, erriak onartuta, goratasun ori, negurriz artu ta danen lagun izatea, munduko karrera guztien goitik dago.

"Zure egiteekin bestien egiteak estalduta geratzen ziran. Sarri jazo oi dan lez, munduko jokabidea besteak zapaldu nai izatea da zoritxarrez... zure berezko nai izatea bide ortatik ez zan joan. Giza biziak emon eutzuzan arin-arinalarirako almenak, arretaz, erabili, asmo onez zuzendu, ta era berean, argitasun ona zabaltzen zendun erritar ta atzerritar jende askoren artean.

Gurari bikaiña da ori. Izan bere, norbere almenak negurriz ikustea ta besteak, arrokeriz, ez zapaltzea, gizontasun ederra da. Orduen, besteak ikusten dabe personearen balioa, jakituria ta nortasuna. Ta aurtengo arin aringa aldietan ikusi dogunez, jendeak, benetan, ezagutu dau zure gizontasuna ta gizarterako daukazun ongi-naia. Bideak eta amaibako jendetzak ikusi dabe aurtengo bizikleta ibillaldien anaikortasuna. Nork ezarrita...?

Bizikleta arin-arinkak bere inguruak daukaz aldatzak gora, aldapak bera, bide luzeak, zuzenak eta okerrak, bakarreko jakabide egunak ta baterako ibillaldiak geienak. Aldatzak gora ez zinduen saldu zure almenak... arrano baten antzera igon zenduzen mendi aundien gaillurrak, eguneko zeregiñak eskatzen eutzunean, mendiak igokeran, gorengo mallara igonez...

Karrerako bakarkako egunak gogoratu daiguzen... Bide ertzetan, beste arin-arinalariak lez, millak lagunek ta erriak bere, arrituta, begira zeunkazan... Mutilla, itxurea, jasa, aidea, ariña, egaz doan arranoa baiño dotoreago ta arrigarriago zan zure irudia bizikleta gaiñean. Zenbat egon ete ziran, begira-begira, begiak zabalik, ta aspertu eziñik... Ta zure barruan pentsamentu bat egoan... Neuk al dodana egin bear dot... Ezin neikez saldu ez lagunek, ez erria, ez ibillaldia antolatu dabenak.

**

Beste alderdi on bat bere, izan dau aurtengo Tour ibillaldiak... taldearen alegiña laguntza ona. Erriarazo aundietan gauza bi bearrezkoak dira... aburu argi ta biotz sendodun gizon bat ta onen inguruan gizon talde indartsu bat. Talde utsa ez da naikoa izaten egitada aundietarako argi zuzendari barik ta gidari on batek bere laguntzailleak bear ditu.

Ikusgarria izan da ba Migel, zu ta zure taldearen arteko jokabidea. `Bear zan garaitan lan egiten gendun'. Gaiñerakoan, besteei izten geuntsen lan egiten ta gogoia beteten. "Emen, ba-dirudi pozaren zati bat besteentzat be nai zenduala. Benetan, gurari ori ederra zan ta jendearen zuenganako abegi ona irabazten zenduen.

"Lagun bateri garailari izaten laguntzea, pozgarria da".

Benetan Uriarte adiskideak, baiezpen-itx ederra esan dau. Baiña oraingoan batez bere, lagun ori zentzun onekoa danean, laguntza ori bikaiñago biurtzen da. Arrokerizko garaitzak beregan daroa nagusitza, ta era berean, besteak menperatuta itzi dituan arropuzkeria. Gizontasunezko garaitza ez da poztuten besteak zapalduaz, eginbear bat odo betetuaz, alaitzen da.

"Gizon lasaia, begiratua, naizta gauza arrigarriak egin aldatz-gora ta bakarreko lan aldietan..." Jose Uriarte. Or dago Migel'en gizontasun-agerkari ederra. Izan bere, gizona gizonduten dauana da norbere barruko sosieu eta bakea. Orrek irakasten dau egiteak euren negurrarian artzen. Almenak nundik artu

diran begiratu ta norberak zentzunez, erabili gizartearen aurrean. ori da jendearentzat atsegingarria.

Merck, Hinault, Lemond... onenakin bardindu zaitue. Zure barrura begiratu ta jazoerak negurtzen jakiteaz, mendi goran naiz bakarrean, menperatu dituzu bideetako artisterik aundienak, baiña ortarako, gizona be izan bear da, ta zuzentasunez, jokatu bideetan zear.

Aldra bitan zatitu geinkez mutillen ibillaldiak... etapalariak eta osoko irabazleak... Ekiñaldi biok dauke, bakoitzak bere balioa... Ainbesteen artean irabazte bat egiteko, almenak, indarra, gertakizuna bear dira... Arin aringara parte artzen doana, zerbait egiteko gogo biziak doa. Jokabide bi orretan agertu izan dozuz zure almen ta trebetasuna, bietara jokatu dozu ta askoren gogoa, zorionez, betetu.

Aurtengo Tour arin aringan, Bugno zan izateko zure leiakidea, baiña bakarreko ekiñaldian bere naitate ta asmoak galdu zituan... alan bearke ete zan...? Edozelan bere, zuretzat nagusi izateko, Tour'eko ateak zabalduta geratu ziran. Alan bere, gogor jokatu bear zan aurrerantzian, ainbeste gazteren almenak negurtu al izan ta menperatzeko.

Indurain ta Chiapuci izan dira aurrelari biak... Migel'ek bakarrekoetan agertu eban goi-mailla; Chiapuci'k bereak egin zitun mendi gaillurretan, baiña makurtu egin bear izan dau Indurain'en nagusitasunaren menpera... Biok agertu eben beste guztien goitik egozela... Chiapuci'k bereak egin ondoren, zure izena, Migel, goratu eban.

Indurain, Donostian, izar bat izan zan... Bere gizontasun ta jokera ain ederragaz jendearen biotza irabazita eukan, ta nunaitik, jendea agertzen jakon gomutagaillu bat eskeintzen... Au da, egiz, Indurain'en izenak artu daben goratasuna. Ez da bakarrik anka ta belauneri bizkor eragitea... ez da bakarrik gorputz lirain bat arrano antzera, bizikleta gainean bideak gora, aldatzak bera ta lauak zear txori egalari bat ikustea... orrez goitik dago mutil orren duintasuna... Ori zan jendeak ikusi ebana...

Migel onartua izan da... izakeraz tratureko biguna... biotzez irabazlea... Arte edo ertia, jakituria, gauza aundiak dira lurrean... baiña biotza irabazi al izateko almena, oroz goitik, dago... Naita almen aun-

diduna izan, aundikeriak ta arrokeriak ez dabe erakarten... Indurain'ek almen onak euki, gauza aundiak egin... ta beste ixil-barruko lagun baten bidez, eurrez irabazi zituan jendetza aundiak... Zelan...?

Ona emen, gizon erantzuera jakintsu bat... "Aunditasunik ez dot egiten... artu ditudan almenak, ondo erabilten aleginduten naz."

Emen dago egizko jakituriaren, maitasunaren ta lagun-arteko onartzearen muiña... Artu ditudan almenak, ondo, erabilten, aleginduten naz... Serbitzaria naz... morroi bat naz neure Egillearen izenean, erria otseinduteko... Migel'ek orregaz irabazi eban karrerarik aundiena.

"Munduko bizikleta arin-aringako irudi barria" dala, ots egin dabe... Indurain, zu-gaitik au esan eben, ta guk entzun genduan. Zu, osoan ezagutu ta au esan ba-dabe... egiz, arin-aringalari baten gandik artu geinken pozik aundiena eldu da gure bizira... Zuk ez zendun ba besterik egin, bizikletarako almenak emon eutzuzanaren bidea jorratu ta lagun askoren buruak eta anak poztu.

Banesto'ko txirindulariak arin-aringa aldi jakiturizkoa egin dau, bere indarrak, ondo zaindurik, ta batez be, albotik urten ta zerbait egin nai ebenak kontuz ta arduraz zaindurik... Emen dago Indurain'en jokabidea, berak erregaluz arturiko almenak, ondo zaindu ta sasitik pio txioka, urteten daben txorien antzera, aldratik arro-arro urteten eben mutil azkarren pausuak zaindu ta bear-zanean, menperatu...

"Azken muga zapaldu arte, ezin daiteke ezer ziurrik esan", diño Indurain'ek.

Berba egikera ederra. Gizon zurrak, egiñez-egiñez garaitzak ziurtatu bear ditu.

"Indurain, egiz, ikaragarria da". Raul Alkala...

Arrigarria izan zara bai, Migel, aurtan, gizontasunez, almenez ta ibilkeraz. Urteko garaitza zeurea izan da.

PAULIN

JAINKOAREN ERRI BERRIA

Jainkoa'ren Erreinura deitzen gaitu Jesus k eta bere antzeko izatera. Deia ez da izan danentzako berdin-berdiña: Batzuei Berak bezalako bizikera eramateko deitzen die, eta, oiek, dana Aita'ren eskuetan lagata, Berari jarraiko diote bizi osoan, Apostoluak egin zuten antzera.

Alaz ere, Jesus'en ikasle guztiak gera deituak, aren antzera bizitzan jokatzeke, zorrak barkatzen eta lagun-urkoa maitatzan etsaiak eurak ere maitatuz...

Eta, oiek ez dira gauza errezak; baiña, Jainkoaren Espiritu maitaleak ematen digu bere laguntza Jainkoa'ren Erreinu aurrera eramateko.

Amabi lagun berizi aukeratu zitun Jesus'ek, Apostoluak, Jainkoa'ren Erreinu ori lur onetan eratzeko.

Eta, amabi oiñarri oien gainean eraiki eta jaso zuen Jesus'ek Jainkoa'ren Erri Berria dan bere Eleiza.

Jesus izan zan bere bizitzan eztabaida sortzen duan ikurrin bat: Bere esanak onartzen zituztenak jarraitzen zioten; gaizki artzen zituztenak, ordea, bere aurka jeiki ziran eta eriotzara eraman arte ez zuten pakerik izan.

Jesus'er Moises'en Legearen aurka jokatzen zuela aurpegira botazen zioten; baiña, Berak argi esan eban, ez zala Legea apurtzera etorri, betetzera baiño.

Israeldarrek Jerusalem'go eleiza nagusia Jainko-Erreinuaren ezaugarritzat zeukian; baiña, benetako ezaugarria Jesus berbera gertatu zan.

Zergalariek Erroma'ren aldeko petxak kobratzen zituzten eta lapurretan egiten zuten israeldarren kalteak. Gorroto zieten. Eta Jesus'ek beraiekin ibiltzen zan eta eurokin, eta beroien antzeko bada-ezbadako

jendearekin ibiltzen zan. Jesus'eri ez zioten ori sekulan barkatu; gutxiago oraindik, pekatuak barkatzea...

Orrelako Jainko'arenganako iraiñik ez zuten sekula-sekulotan ikusi... Eriotza zor zitzaion eta iltzea merezi zuen.

Eta orreela, Israel'go apaiz-nagusi, legelari eta agintariek Jeus'eri eldu eta iltzea erabaki eben, Jainko'aren Erreinuaren oiñarriak dinamitatzen ari zalako.

Jesus'ek Apostoluei askotan esandakoa gertutako da: Neke izugarri artean erailko naute Jerusalem'en. Alaz ere, il aurreko egunetan, Bera nor zan agertu nai izan zien eta astotxo baten gainean sartu zan Jerusalem'en, Erramu igandean, jendeak deadarka onela esaten ebala:

Hosanna Dabid'en semea!

Bedeinkaua Jaunaren izenean datorrena!

IÑOREN LAGUNTZAT

Askok uste dute bakoitza, bere indar soillez, eldu litekela bere osotasunera; edo-ta, beste gizakien laguntza. Jainkoa'ren laguntzik ez da bear.

Israeldarrek, berriz, uste zuten, Abrahamem seme zirelako, Moises'en Legea eta Jaiak bete ezkerro, ez zutela besterik bear.

Eta, zer dio Jesus'ek?

Oiek danak ez direla naikoak norki edo persona bat bere eldutasunera iristeko. Jaunaren laguntza bearrezkoa degu beti:

"Ni gabe ezin deikezute ezer egin".

Beste aldetik, berriz, Jesus Elkarte Berri bat osotzera etorri zan eta ez gu, bakoitza, bakardadean uzteko. Orretxegaitik aukeratu zitun bere amabi Ikasleak, Elkarte ori lortu aal izateko eta Eliza ori

eraikitzeko. Eliza ori da Jainko-Erreinuaren senide-elkarte, munduaren albamenerako eta guretako bakoitzeko salbamenerako.

Oiek orrela izanda ere, badirudi, gure artean, orrelakorik onartzen ez duten kristauek badirala: Auentzako norberaren salbamena arazo personala da, Jainko eta gure arteko arazo personal berizia, eta kito.

Kristauok, ordea, Jesus'en jarraitzalle geranez, ez degu bakoitza bere buruarentzako bakarrik bizi nai: guztiok izan gara, beste gure lagunekin, talde bakar bat osatzera deituak. Gure salbamena alkarrekin egiten da, Jesus piztuaren inguruan.

Zein gozo ta eder dan
anaiok alkartu
eta danok batera
Jainkoa goratu.

JESUS'EN GARAIKO ERLIJIO-TALDEAK

Erlijio-inguruan zebiltzanak bi taldeetan banatzen ziran Jesus'en errian: Saduzeoak eta Fariseoak. Bi talde auek ziran, ere, indarra zutenak Israel'en.

Saduzeoak.

Aundiki eta aberatsak ziran; Erroma'rekin ondo konpontzearen aldekoak. Ebanjelioan Apaiz Nagusi eta Zaarrak aitatzen diranean oiek danak Saduzeoak ziran. Moises'en Legetik idatzita zegoena bakarrik onartzen zuten eta ez, gero lege-maixuek erantsitako oarpenak eta bizitzarako bear ziran moldaketak. Auek danak baztatu egiten ebezan.

Ildakoen piztuerarik ez zuten sinisten. Eta, eurok osatutako legeak Erromatarren aldekoak ziran.

Jesus'en eriotzaren ondoren, Erromatarrek Jerusalem desegindu zutenean, orduantxe galdu ziran betirako Saduzeoak.

Fariseoak.

Fariseoek usten zuten Moises'en legea Jainkoa'k bere erriari emandakoa zala eta Lege ori bizitzarako moldatzen saiatu ziran beti asmorik onenenakin.

Erriarengandik gertu bizi ziran eta erriak oso ondo artzen zitun. Legeko agindurik txikienak ere betetzen saiatzen ziran eta orregaitik, beuren buruak Jainko-zale bezala agertzen zituzten.

Jokaera auek begira zertara eraman zituen: Usario utsak eta gizonen lege ziran oitura asko, Jainko-legetzat artzera, alde batetik eta bestetik, berriz, itxura ona gordetzra, bestrik gabe. Orregaitik erasotzen zien Jesus'ek.

Ildakoen piztuera sinisten zuten.

Ebanjelioetan idazkeri edo lege-gizon esaten danean, farriseokin topo egiten degu, Makabeotarren burrukan parte artu zuten eta Erroma'ren aurka agertzen ziran beti.

Ainbest ko garrantzirik ez zuten beste bi talde ere baziran Israelen: Esenioak eta Zeloteak.

Esenioak.

Basamortuan, Itsaso-illaren inguruan bizi ziran, errietatik aparte. Idazti-santuen ikerketari eta otoitzari emanak. Joan Bataiatzallea tarteko izango zuten. Qumran'go ar-zuloetan, 1947'an, lurrezko ontziak arkitu zituzten, Bibliaren jatorrizko idazlanak. Esenio'en liburutegia.

Zeloteak.

Abertzale sutsu burrukalariak ziran, Jainkoa'ren Erreina ezpatez eta indarrez ezarri nai zutenak.

JESUS'EN ERIOTZA, JAINKO-ERREINUAREN PREZIOA

Jesus'en etsaiek, politika eta erligioan buru zirenak, ez zuten Jesus'ek agindutako Jainko-Erreinurik nai. Eta, alako Mesias erditik kentzeko, Jesus iltzea erabaki eben.

Pazko-Ostegun arratsalde aretan Jesus'ek eta bere amabi Apostoluek, Legeak agintzen zuen Pazko-aparia egin eben, eta aurretik Jesus'ek Amahbiei oiñak garbitu. "Jarrai-bide ona eman dizuet oiñak garbitzean, zuek ere beste orrenbeste egin ezaiozuen alkarri benetako maitasunez".

Pazko-arkumea jan ondoren, ogia artuta, onela esan eban: "Au da neure Gorputza eta jan bertarik'

EZIKETA

eta ondoren "Au da nere Ondolaren kaliza, pekatuen barkamenerako ixuriko dana eta edan bertarik. Egizue au nere oroigarri".

Agindu ori emon eutsen Jesus'ek eta agindu ori bete eben. Gaur ere, ia 2.000 urte pasata gero be, mundo zabal guztian betezen da agindu ori, izkuntza guztietan...

Orrelako indarra dute Jesus'en aginduak eta berbak: -"Egin". Esan zuen eta egin zan, egiten da eta egingo da betieren beti.

Jesus'en oparia Itun Berriko Pazkoa da; Jesus'en aparia ospatzen dogun bakoitzean, Aren eriotzea eta piztuera ospatzen doguz, berriro mundura etorriko dan artean.

Apal-ondorean, Getsemani deritzan olio-baratzara joan ziran otoitz egitera. Apostoluak lo eta Jesus otoitzean zegoala, etorri ziran etsaiek, Judas buru zutela, eta atxiotu zuten.

Erljio-agintarien batzarra bildu zuten, Jesus epaitzeko: - Zu al zara Mesias? Galdetu zion Apaiz Nagusiak. -Bai, ni naiz. Erantzun Jesus'ek. - Entzun dozute biraoa. Zer eritxi dozue? - Eriotza zor zaio. Erantzun eben guztiek. Eta, eriotzara kondenatu zuten. Ondoren Pilato'regana eraman eta onek, berriz, gurutzera.

Zigortu zuten Jesus gudariak eta estalki gorria ipiñi zioten soiñean eta arantzazko koroia buruan; gero burla egin eutsen onela esanaz: - Agur, judutarren errege.

Burlak egin da gero, mendi tontor batera eraman eben gurutze batean josteko, eta, idazkun bat ipiñi gurutz-muturrean: "Jesus Nazaretarra Juduen Erregea": (I.N.R.I.) latinez.

Parre eta ixeka egiten zioten bere etsaiek. Arratsaldeko iruretan deadar aundi bat egin eban Jesus'ek: "Aita, zure eskuetan uzten dot nere espiritu". Eta azken arnasa eman zuan.

Eta, lurralde guztia illunbetan gelditu zan.

Arratsaldeko bostetan, jatxi eben gorputza gurutzetik, eta gantzu usai-gozodunez igurtzita, obiratu zuten.

illobia arkaitz-zulo batean egiña zegoan, ildao gorputzik gabea, eta bertan sartu eben Jesus illaren gorpua. Eta, illobiaren sarrera arri aundi bategaz itxi eben. Jesus'en Ama eta beste emakume, Jesus'en lagunartekoak, an zeuden begira-begira.

JESUS'EN PIZTUERA, JAINKO-ERRIAREN SARIA

Jesus esaneko zian zan beti eta eriotzararte bete zuan bere Aitaren naia. Beeratua izan zan semea, goratu egin zuan Aitak: Berpiztudana ez da geiago eriotzaren mende izango... Eriotzaren kateak ausi, lurpetik garaille jeiki eta betirako bizirik iraungo du, gure saria izango dan Jesus berpiztua.

Larunbata sakratua zan judutarrentzat: Edorzertako lanik egin ezin. Apostoluekin laguntzaille bezala zebiltzen emakumeak urduri zeuden igande artako egunsentiaren zai, illobira joan eta Jesus'en gorpua obeto garbitu eta gantzututeko.

Ostirale arratsaldean, gorpua gurutzetik jeistean, berandu zan eta seiretan asten zan larunbata; eta seiretatik aurrera geldirik egon bear. Orregaitik ez zuten bear añako denborarik izan, patxara onean Jesus'en gorpua illobiratzeko. Ori dala-ta zeuden ain urduri emakumeak igandearen goiz aretan.

Joan ziran illobira. Ate-aurreko arri borobil aundia aldamenara egiña zegoen eta illobia irikita. Sartu ziran eta an gorputzik ez zegoen. Estu ta larri abiatu ziran Apostoluengana albistea ematera... Bidean Jesus berbera ageru zitzaien; baña, Jesus piztu zanik, ez zieten Apostoluek sinistu. Ori eziñezko gauza zan...

Igande artako arratsaldean, alkarrekin bildurik zeudela eta ateak itxita, euren artera asartu zan Jesus bizi-bizirik eta bere gorputzeko esku-oñetako zauriak erakutsi; baita bularrekoa era, soldaduaren lantzak egindakoa...

Poztu ziran zearo. Baña, Tomas falta...
Maixuas ikusi dogu bizirik.
Zuek zoratuta zaudete emakumeen antzera.
Ondorengo igandean, Tomas bertan zegoela,
agetu zan berriro Jesus:
Tomas, sartu zeure beatz ori neure eskuetako
zuloetan...
Ene Jaun eta jainko!
Ikusi dozulako sinisten dozu? Zorionekoak ikusi
gabe sinistuko dutenak.

Agertu zan Jesus bein eta berriro, zerura igo arte;
ez baña, agindu au eman gabe:

Zoazte mundu zabalera eta Berri-Ona Zabaldu
izaki guztiei, pekatuak barkatuz... eta Zuekin egongo
naiz munduaren azken eguna elduko dan arte...

An dago gure zai guretzako sari izateko; bere
betirako bizia emateko, Jainko-Erreinuaren betiko
bizia...

Bere piztuerakin egi biurtu du Jesus'ek
Jainkoaren Erreina. Ez da amets bat, betiko bizia-
ren betea, baizik. Apostoluak dira testigu eta eurok,
Espirituaren indarrez, sortutako bi milla urteko
Eleiza.

JESUS'EN ELIZAREN SORTZEA

Zerura alde egin baño lenago, onela esan zien
Jesus'ek bere Apostoluei: -Ez alde egin Jerusa-
lem'dik nik agindutako Espiritua artu arte.

Otoitzean alkartuta. Espirituaren zai zeudeñ
Apostoluek.

Pentekostes egunean, goizeko bederatzietan, aize-
burrundara Jerusalem'go kaleetan zear. Apostoluek
zeuden etxean sartu zan. An barruan, suaren antzeko
mingaiñak agertu ziran eta bakoitzaren buraren gai-
ñean kokatu. Ondoren, Espiritu Santuaren garrez
bete zitzairen biotza, eta argiz, buruak.

Egun artatik asi ziran Jesus'en agindu au bete-
zen; - Zoazte munduan zear nere Berri Ona zabal-
tzera. Eta, kalean arriturik bildu zan jendetzari, onela
ekin zion Pedro'k: - Zuek il zenduten Jesus,
Jainkoa'k piztu egin du, eta gu gera gertakizun orren
testigu eta lekuko. Lan onetarako aukeratu gaitu

Jesus'ek, eta bera da pekatuetatik askatuko gaituen
Mesias.

Jendeak erantzun: - Zer egin bear dogu?

Pedrok: - Sinistu eta biotz berri, ondoren bataio
artu eta Espiritu Santuz beteko zerate.

Egun artan sinistu zutenak, bataiatuta, Elizari
asiera eman zioten danen artean.

Ura izan zan Elizaren sortzea.

Arrezkero bataioa da Elizan sartzeko atea.
Bataiatu gabeak atetik kanpora dabilta eta beste
Sakramenturik (Penitentzia, Eukaristia...) artu ezin.
Jentillak dira oraindik. Moroak.

Bataiatu ziranak, andik aurrera, alkarrekin biltzen
ziran otoitza egiteko eta Eukaristia ospatxeko...
Batez ere igandean, Jesus piztu zan egunean.

Baña, laister, Jesus'er eraso zioten bezala, eraso
zieten kristau berri aieri ere...

Apostolu batzuek kartzelan sartu zituzten eta
zigortu, ixilik egoteko aginduz; baña, ez ziran ixil-
du... Andi laister, Santiago'ri lepoa moztu zioten
Jerusalem'en bertan et kristau guztiak giltzapean
sartzen asi ziran. Iges egin bear izan zuten
Jerusalem'dik best errietara, eta orrela asi zan kris-
tautasuna inguruan zabaltzen.

Espiritu Santua aize eta suaren itxuran agertu zan.
Aizea espirituaren irudia da: Gorputzik ez duna.
Suak, berriz, argitu eta berotu egiten du. Espiritu
Santuak Apostoluen buruak argitu zitun eta biotzak
berotu. Jesus'en erakutziak eta asmoak une batean
argitu ziran euren buruetan, biotza indarturik.
Bildurtiak ziranak, ausartak egin zitun Jesus'en
Espiritu Doneak. Andik aurrera aurpegia emango
zuten eta ez dira geiago ezergaitik bildurtuko, dizia
Jainkoa'ren Erreinuagaitik emon arte. Jesus'en
Espiritua geure argia eta geure indarra ere bada.

ZUZENKETAK

Aitz apurrak dirala eta...

Poztasunez beterik irakurtzen ditut euskeraz ondo idatzitako iragarkiak bañan ardura gabekeriz egiñak biotz-min eta negar egiteko gogoaz samindurik geratzen naiz.

Ona emen agerkera batzuk euskeraz dakitenak egiñak:

Gazteleraz	agertuak	euskeraz
leyendo un reportaje dicho famoso convendra	erreportai bat letzen esaldi famatua komeniko da	barribildun bat irakurtzen esaldi ospetsua egoki legoke
habfa un programa viene de primera para hacerle frente la suerte de reunirse la desgracia me trajo suerte el sentido principal esperar	bazen programa bat primeran dator frente egiteko elkartzeko grazia zoritxarrak suertea ekarri zidan sentidurik printzipalena espero	bazen egitarau bat bikain dator aurre egiteko elkartzeko doaia zoritxarrak zoriona ekarri zidan zentzumenik nagusia itxaron
en un trabajo importante los problemas que plantea la vida responder y asumir con lealtad en un campo de concentracion	lan importante baten bizitzak planteatzen dituen problemei erantzunkizuna leialki asumitzea kontzentrazio zelai baten	garrantziko lan baten bizitzak iragartzen dituen arazoei erantzunkizuna zintasunez gain artu gizoztebilketa zelai
Universidad Vicerector Orquesta Sinfonica Convenio Informacion Interesados Protagonista Papelera (Fabrica) Del Espacio Consultar Sobre encantamientos Entre las naciones modernas Temperamento dramático Clasico del Hipodromo	Unibersitatea Errektorordetza Orkestra Sinfonikoa Komenioa Informazioa Interesatuak Protagonista Papelera Espaziotik Kontsultatzea Enkantamentueri burliz Nazioarteko modernoak Tenperamendu dramatikoa Klasikoaren Hipodromoan	Ikastetxe Nagusia Zuzendari Ordea Ereskintalde Olsezi Itunketa Txosten Emaizta Obarizaleak Lenantzezlari Ingi Ola Utzgunetik Aolku eskatzea Zoragarriketari burliz Enderriarteko gaur gaurkoenak Ardura latzgarria Ereduzko lastertzaltzeian

Ikasle bat naiz eta arri pitxi onek ez ditut azaltzen arroketez baizik lotsa ematen didalako euskaldun idasle batek ajolakabekeriz orrela agertzea.

Euskera goraldu nai badegu saiatu bearrean gera, bada orren traketz egiñik gu izango gera erailtzaileak.

Euskeraren izakera ez dezagun larriago jarri.

Ez gaitezen ibilli berriro esanaz Euskeraz ablatzeko maniera Casa Consistorialian emango dizue demostrazio palpablea.

Maitasunez idatzi dezagun, zabarkeriak alde batera utzirik.

ARTOLOZABAL'TAR ILARI

ARANBURU'TAR FRANZISKO (Misiolaria)

ARGI MUTILLAK

"Zuek zaree munduarentzat argia. Eta argia ez da biztuten otzara-pean ipinteko, argi mutillaren gañean baño, etxeko guztiai argi egin dagitsen" (Mat.5,14).

Kristo gure Jauna da, egiaz, munduko argia, eta gu bere argi-mutillak, batez be mundu zabalera doazan mixiolariak.

Peru'ko uri, erri, baso eta mendietan ugari izan doguz eusko mixiolariak. danak jokatu dabe leialtsu Kristo'ren Barri Ona zabaltzen ,eta giza biotzetan bere sinismenaren argia biztuten. Baña, batzuk, nork ukatu?, gorengo maillan ipiñi dabe euren izen ona, Kristo'ren, elizaren eta aberriaren alde arrigarrizko egiteak egiñaz.

Miila Batres idazlariak idaz-lan ederra argitaratu dau emen, izenburu onegaz: "Diccionario Historico y Bibliografico del Peru". Bederatzi liburu mardul dituzu, eta eusko abizenak orrialde askotan agertzen dira. Arritzekoa da ainbeste euskeldunen izen eta abizen Peru'ko Kondairan ikustea.

Liburu onetatik artu gura dodaz eusko mixiolari ospetsuen izenak eta egintza goragarriak; eta illero ZER albiztarian argitaratu. Benetako arti-mutillak dituzu Kristo'ren Barri Ona ots egiten, eta aberriaren alde jokutzen.

ARANBURU'TAR FRANZIZKO

"Gizaldi ontan franzizkotar mixiolaririk ospetsuena izan da. Lima uriburruan bizi izan arren, Peru'ko erri askotan Kristo eta gure aberriaren alde eten barik jokatu eban". (Miila Batres).

Kortezubi erri txiki eta ederrak makiña bat seme-alaba jatorrak emon dautsoz aberriari eta elizari. Erri ontan jaioa dogu Franzizko. (1870, otsailak 27).

"Gazte gaztetatikan erritik kanpora". Loretxu erne barria bere azi tokitik lur gorriera eroaten dan legez, alantxe Franzizko gaztea Peru'ra ekarria izan da amabost urte dituala, beste ogetabost lagunekin, aita Lukas Garteiz'en ardurapean. Amasei urte bete

AITA ZENON PASIOTARRARI ESKER ONA

Peru'n ainbeste urte egin ondoren, barriro gure artera etorri jakun aita Zenon pasiotarra, adiskide ona ta antxiñakoa.

Eta urteak urte an egin izan arren, zelako maitasun beroa ekarri dauan gure izkuntzari begira. Eta ez maitasun utsa, egitez beterikoa baño.

Gogotsu ta arduratsu izan dogu kideko Euskerazaleak Alkartea'k 25n. urtea ospatzeko egin dauzan eginkizuntan, eta bein eta barriro idazten dau gure aldizkarian.

Eskerrik asko Zenon Aita!

Orain barriro joan da Peru'ra bere misiolari-lana jarraitzeko, baiña aindik be Zer'erako idaz-lanak ugari bialtzen dauz eta askotariko laguntza emoten dauku.

Irakurleak errez ikusi daikeen lez, Zenon aitaren euskerea oso jatorra ta aberatsa da eta bere lanak artzen jarraituko dogula itxaroten dogu.

Ba-dakigu bere lan nagusia zein dan: Pasiotarrak Lima'na dauke Pilar'eko Andra Maria'ren Parroki aundia dauka bere ardurapean. Bere ardura au ondo bete dagian goi-eskar eta laguntza eskatzen dautsaguz, Barri Ona zabaltzeko ardurea emon euskun Jesus Salbatzailleari.

Peru'ko lurralde areik ba-dauke gure laguntzaren bear-izana, aberastasun aundiak dituan lurraldea izan arren, aurrerapenean bidea artu-eziñik dagoalako.

Ekin, Zenon adiskide ta lankide, pasioatarren Bazkunaren bidean eleizeak emon dautzun ardura orreri.

ZER

PERU

aurretik jantzi eban franzizkotarren praille jantzia Lima'ko ONUTSEN lekaidetxe ospetsuan. Sasoi ontan emen bizi ziran entzute aundiko mixiolariak. Emeretzi urte bete barik, biotz beroz, egiten dau praille profesia.

Franzizko'k argiro erakusten dau, bere izate eta izakera osoan. Jaunagandik artutako donia eta grazia. Buru argiduna, eta biotz zintzoduna da. Jatorrizko gaitasuna dario bere egikera guztietan. Eliz ikasteak amaitu ostean Meza Barria emon dau (1984, iraillak 29).

MIXIOLARI

Baña Franzizko'k landa zabalagoak nai ditu. Mixioetarako jasa eta ziria sentitzen dau biotz barruan. Eta Kristo gurutzetuaren maitasunak eragiñik asi da erriz erri Barri Ona ots egiten. Etorri aundiko gizona da, izan be.

Nekea, aultasuna eta gaixotasuna alkarren kidekoak oi dira. Ezta iñor atsekabe barik, ez gerizpe bako arbolarik. Eta 1921 garren urtean, nekearen nekez, gaixo gaiztoak jota, Euskadi'ra etorri bearra izan dau, atsenaldi eta sendoaldi bat izateko. Aldi ontan Erroma'ra joan eta Benedikto XV aita santuak maitekiro artu dau eta bere onespina emoten dautso.

Peru'ra ostera be biurturik, Lima'ko Nunzioak bere laguntzat artzen dau, Puno eta Juliaka urietan artzain jardunak egiteko. uri onetan geratuko da Franzizko erri-mixioak emoten (1922).

Sasoi ontan Peru'ko Lendakariak bake bidera ekarri nai ditu Andes mendietan naaste gorrian bizi diran erriak, eta Franzizko'ri eskabide larria dagitso, Kristo'ren izenean, ango erriak zuzenbidera erakartzeko. Bai, egia da izan be, legeak eta espetxeak baño Kristo gurutzetuaren grazia askoz be geiago da giza-biotzak on-bidera ekarteko!

Bere abots ederra, eta biotzetik sortzen jakon oiugartsua geien entzun dabenak Lima'n eta Kallao'n izan zan. Konta-eziñak dira bere itzaldiak, batez be garizuma aldian Lima'ko Eliza Nagusian eta beste ainbat elizetan. Biotzez biotz berba dagi eta biotz barritzea burutara emoten dau.

Franzizko'k eratu ebazan ain entzute aundiko "astebeteko Kristau ikasketak", Guadalupe'ko ikastetxean eta gudarien elizan. Bera izango da euren kapellau.

Franzizko ez da geldi egoteko mutilla eta Lima'ko santutegiak, elizak eta aldare buruak barriztau eta edertuten azka ta puzka dabil, au da, Rimak izeneko Kristo Jaunaren eliza, Quibes elizatxoa, eta batez be San Kristobal mendi gañeko gurutze dizdiratsua. Berak barriztau eban Franzizkotarren Gogo Jardun etxea, lur-ikarra gogorrean eratsia, eta bera izan zan etxe onen zuzendaria berrogei urte buruan.

Leguia lendakaria eratxia izan zanean, Franzizko, erbesteratua, Chile'ra doa. An biziko da urte bi (1930-32).

Emendik Buenos Aires'en ospatzen dan Eukaristia Batzarrera doa. Eta gero Lima'ko Eukaristia Batzarra eratu eta atontzeari ekiten dautso (1935).

Pozaldi sakonak be ez dira falta bere bizitzan. Lima'tar geienen artean oso gogokoa da. Begi azurra bezain maite dabe. Eta beiñ baño sarriago domiñak eta gurutzeak ezarri dautsez. Azkenik, on egiñez beterik, Jaunaren eskuetan il egin zan Lima'ko Franzizkotarren lekaidetxean, 95 urte zituala (1964, abenduak 8).

LIMA'TIK
URIGUEN'TAR ZENON'EK

ZUBIKARAI'tar AUGUSTIN'eri OMENALDIA

Azillaren 8'an izango da Ondarroa erriak erriko seme dan Augustin Zubikarai'ri egindo dautson omenaldia.

Erriko seme ospetsuai egiten jaken lez, Augustin lankide ta adiskideari be kale bat eskiñiko dautso Ondarroa'k. Ondo egiña. Ondo irabazia dau ori Augustin'ek.

Zoriona, Augustin!

ZER

25n. IKASTURTEA

Aurten beteten dira 25 urte EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k lenengo ikasturtea eratu ebala.

Ikusten dogun lez, Alkartea sortu zan urte beratan asi zan irakaskintza au. Eta auxe datort burura: Ez ete gara lenengoak?

Lan aundia da alkarreak urte onegaz Bilbao'tarren eta Bizkaitarren alde, Bizkai'ko euskerearen alde egin dauana.

Eta ondo esanak diran gauzak gogoratzea ona dan ezkerro, ona emen Zubiri'tar Iñakik omenaldiko Euskal-Astean esan ebazan berbak ZER'en 165n. zenbakitik artuta:

Asiera batetik, Batzordearen ekintzarik beñena, euskaldun barrientzako euskal ikastaroak sortzea izan zan, eta ezagutu dagizuen zelako garrantzia izan dauan arlo onek, ona emen zenbaki batzuk euskerearen irakaskintzari buruz, asieratik ona:

1968-69-70-71 ' an.....	1.000	ikasle gitxi gora-beera
1972'an.....	314	"
1973-74-75' an.....	985	
1976'an.....	380	
1977'an.....	502	
1978' an.....	460	
1979' an.....	565	
1980' an.....	460	
1981' an.....	465	
1982' an.....	402	
1983'an.....	298	
1984' an.....	302	
1985'an.....	207	
1986'an.....	175	
1986'an.....	98	
1988' an.....	70	
1989'an.....	58	
1990' an.....	42	
1991'an.....	53	

Uda ikastarotan:

1979' an.....	65	ikasle
1980' an.....	80	
1981'an.....	60	
1982' an.....	98	
1983'an.....	42	
1984' an.....	80	
1985' an.....	30	
1986'an.....	20	
1987' an.....	8	

.....485 ikasle

Arrezkerro, eta ikasleen kopuru-beerakadea ikusirik, ez dogu beste Udako ikastarorik atondu, baiña bataz beste, gure ikas-gelatatik 7.327 ikasle igaro dira 24 urteotan.

Ogei ta iru irakasle izan dira ikasle-kopuru oneri irakatsi dautsoenak, eta ona emen euren izenak:

Karmelo Etxenagusia; Jose Maria Makua; Kepa Dañobeitia; Yon Malaxetxebarria; Bitori Agirre; Bautista Goikoetxea; Felipe Olazaran; Benito Otazua; Josu Arregi; Bernardo Ibarra; Imanol Lejarza; Elixabete Elgezabal; Jose Agirre; Josu Legarreta; Ixidor Etxebarria; Jose Agirrezabala; Margari Alonso; Agustin Etxebarria; Karmele Fernandez; Iranzu Dañobeitia; Sorkunde Bilbao; Kontxa Barrutia; Luis Larrinaga.


Ikusten dan lez, 1987'an izan zan berakada aundi bat. Zergaitik? Zalantza barik, urte orretan beste ikasturteak zabaldu ta ugaritu egin ziralako.

Ez ete da gero euskalzaletasuna galdu egin dala-ko? Ez dogu uste, baiña bakoitxak aztertu begi bere burua eta oraintxe dira egunak izena emoteko.

Dana dala, gu aurrera goaz lan onurakor au egi-ten: Irakasleak, irakasleak, alkarreak eta laguntzailleak orretan batera gatoz.

Au da, 24 ikasturtetan 6.842 ikasle

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

150 PEZETA